

TOLOSALDEA / Kultur eskaintza zabala izango da eskualdean etxeko txikienentzat

TOLOSALDEA. DV. Galtzaundi Euskara Taldeak kultur eskaintza zabala antolatu du datozen asteetarako etxeko txikienentzat. Ipuin kontalariak, antzerkiak eta pailazoak izango dira ikusgai eskualdeko herri ezberdinetan. Idoia Sanchez izango da Tolosaldean zehar ipuinak kontatzen ibiliko dena. Oraingoz bi hiru eskainiko ditu. Lehena datorren urriaren 16an izango da Alzoko liburutegian 17:00etan. Bigarrena eta hirugarrena berriz, urriaren 25ean eskainiko ditu; bata Ikaztegietaiko liburutegian 17:00etan, eta bestea Baliarraingo liburutegian 18:30etan.

Ipuin kontalariak gain, antzerki emanaldiak ere ikusi ahal izango dira datozen asteetan. Batetik, urriaren 19an Ikaztegieta Irrintzi Antzerki Taldeak 'Zuk zuk jaunaren alfabetoa' antzezlan eskainiko du. Emanaldia polikiroldegian izango da arratsaldeko 17:30etan.

Bestetik, azaroaren 9an Iruran Zenbat Gara taldeak 'Amama Pantxikaren altxor ezkutua' emanaldia eskainiko du. Ikastolan izango da 17:30etan hasita.

Eta amaitzeko, pailazoak. Izan ere, urriaren 20an Pirritx eta Porrotx Berastegin izango dira euren 'Mari Motos' ikuskizunarekin. Saioa herriko pilotalekuan izango da 17:00etan.